



## I. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

#### Foru Enpresak eta Foru Erakundeak

#### Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea (GUFÉ)

#### **Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUFÉ) 2025. urterako enplegu publikoaren bigarren eskaintza onartzeko Erabakia.**

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, 2025eko abenduaren 3an eginiko ohiko bileran (4/25 akta), besteak beste, honako erabaki hau onetsi zuen:

«*Bakarra*: Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUFÉ) 2025. urterako enplegu publikoaren eskaintza onestea, eranskinean ezartzen diren baldintzen arabera. Eskaintza honi ondoz ondoko beste eskaintza bat edo batzuk gehitu ahal izango zaizkio, aplikazio-muga legalera iritsi arte, hala badagokio.»

Bilbon, 2025eko abenduren 4an. — GUFÉ-ren gerentea, David Latxaga Ugartemendia

**ERANSKINA**

I

**BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN (GUFÉ)  
2025. URTERAKO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA****1. artikulua**

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen (GUFÉ) 2025. urterako enplegu publikoaren eskaintza onesten da, erabaki honetan ezartzen diren baldintzen arabera eta honako hauek ezarritakoa betez: Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 51. eta 52. artikulua eta konkordanteak, Langile Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu batgina onesten duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70. artikulua, Estatuaren 2023. urterako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 20. artikuluko 1-4. apartatuak (2024 eta 2025erako luzatu da lege hori, EK 134.4 artikulua aurreikusitakoaren arabera) eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2024. urteko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 3/2024 Foru Arauaren 14. artikulua.

**2. artikulua**

1. Enplegu publikoaren eskaintzan, aurrekontu-zuzkidura izan arren deialdi-prozesurik ez duten plaza hutsak sartzen dira, bitarteko edo aldi baterako langileen bidez beteta daudenak barne. Guztira, 63 plaza dira; haietarik, txanda askeko 42 eta barne-sustapeneko 21. Erabaki honen eranskinean jasotzen dira plaza horien kuantifikazio ordenatua eta xehakapena.

2. Horrela adierazitako enplegu-eskaintzak berekin ekarriko du konprometitutako plaza dagozkien hautaketa-prozesuen deialdiak egiteko betebeharra, eta ehuneko hamar gehiago, gehienez, enplegu publikoaren eskaintza honetako plaza guztien gainean, baldin plaza hutsak sortzen badira eskaintza hau onesten denetik. Kasuan kasuko deialdiak zehaztu beharko du prozeduraren zein fasetan gehituko diren plazak. Nolanahi ere, eskaintza hau hiru urteko epe luzaezinean gauzatu beharko da. Eranskinean jasotako plaza hutsak ez daude konprometituta ez enpleguaren eskaintzan ez deialdi prozesuan.

**3. artikulua**

1. Bizkaiko Foru Aldundiko langile guztien artean, %2 baino gehiago dira desgaitasuna duten pertsonak, eta, beraz, administrazio honek betetzen du Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 74.1 artikulua eta aplikatu beharreko araudia (Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege orokorra, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia). Hala ere, eta integrazioari begira, deialdi batzuetako oinarri espezifikoko plaza hutsak erreserbatuko dira %33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonak bete ditzaten. Betiere hautaprobak gainditzen badituzte eta, hala behar denean, adierazitako desgaitasun-maila eta dagozkien zereginak eta eginkizunak betetzeko gauza direla egiaztatzen badute, aplikatzekoa den legerian aurreikusitako moduan. Dagokion kupoaren zati bat adimen-desgaitasuna egiaztatzen duten pertsonak bete dezaten erreserbatuko da.

2. Desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako plazak sarrera arrunteko plaza-deialdietan sartu ahal izango dira, edo aparteko txanda batean.

3. Ezintasuna duten pertsonak gainerako hautagaien baldintza berberetan onartuko dira Foru Erakundeak deitutako hautaketa-prozeduretan.

4. Desgaitasuna duten pertsonak eskatuz gero, denbora eta baliabideak egokituko dira hautaketa-probak egin ahal izateko, betiere horrekin proben edukia hutsaltzen ez bada edo eskatzen den maila murrizten edo gutxitzen ez bada.

5. Artikulu honen ondorioetarako, desgaitasuna duten pertsonentzat joko dira izaera hori dutenak edo %33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila daukatenak, organo eskudunek aitortuta (IMSERSO, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Saila edo baliokideren bat), urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuaren arabera.



6. Aurreko paragrafoetan adierazitako kasuetan, desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako plazak eskatzen dituzten izangaiek honako hau egiaztatu beharko dute, organo eskudunek emandako ziurtagirien bidez: batetik, desgaitasun hori dutela, eta, bestetik, eskatutako plazetan egin beharreko lanak eta eginkizunak egiteko gaitasuna dutela.

7. Ekitaldi honi dagozkion enplegu publikoaren eskaintzak osatzeko ondoz ondo egiten diren eskaintzen esparruan gauzatu ahal izango da erreserba hori.

#### **4. artikulua**

1. Barne-sustapeneko prozesuen bidez eskainiko dira eranskinean hartarako seinalatutako plazak, eta ez dira sartuko langileen berritze-tasatik eratorritako gehieneko plaza-mugaren barruan. Bizkaiko Foru Aldundiko eta haren erakunde autonomoetako lan-kontratadun langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren testu bateginaren 103.1 artikuluan ezarritakoarekin bat, gutxienez %33koa eta gehienez %50ekoa izango da deialdi bakoitzean barne-sustapenerako erreserbatutako plazen ehunekoa.

2. Barne-sustapenerako erreserbatutako plazak betetzeko, deialdi bateratu bat egin ahal izango da sarrera arrunteko plazeekin batera, edo, bestela, beste deialdi bat, txanda independente batean.

3. Barne-sustapen bidez sartzeko, dena delako deialdian ezarritako probak gainditu behar dira.

4. Barne-sustapenerako erreserbatutako plazaren bat hutsik geratzen bada, txanda askeko plazei gehituko zaie.

#### **5. artikulua**

1. Eskaintza hau plazen deialdia denez gero, eta ez zuzenean lanpostuen deialdia, hura era ordenatuan gauzatzeko egiten diren deialdi partikularrak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnean behin-betiko zehaztuko dira, dagozkion postu funtzionalak determinatzen diren batera, esleitutako hizkuntza-eskakizunak (HE). Hala eginez betetzen da, horrenbestez, XIII. tituluaren («Hizkuntza Normalizazioa») xedatzen duena Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak eta gaiari buruz aurreikusten dena Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan, zeinean 11/2022 Legearen 187. artikulua eta konkordanteak aipatzen baitira dekretuaren 38. artikuluan ezarritakoarekin lotuta, bereziki kontuan harturik zer manatzen duen 11/2022 Legearen 52. artikulua enplegu publikoaren eskaintzaren edukiarekiko. Ez da aurreikuspen horretatik kanpo geratzen enplegu publikoa lortzeko ezarritako euskara-eskakizunen inguruan arestian sortu den jurisprudentzia, zeina eman baitute hainbat epaitegik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiak berak eta Foru Erakunde honetara ere iritsi baita.

2. Ondorioz, derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna duten plazetara sartzeko, nahitaezkoa izango da baldintza hori betetzea, eta deialdiaren oinarrietan zehaztutako eran egiaztatuko da.

3. Aipatutako determinazio funtzionalaren ondorioz eskaintzen diren gainerako plazetan, euskara jakitea merezimendutzat joko da, eta, beraz, ehuneko bat esleituko zaio. Ehuneko hori ez da inola ere izango, hautaketa-prozesuko gainerako probetan gehienez lor daitekeen guztizko puntuazioarekiko, ez ehuneko bostetik beherakoa, ez ehuneko hogeitik gorakoa.

#### **6. artikulua**

Hautaketa-prozedurak arrazionalizatu eta era eraginkorrean egiteari begira, 2025. urterako enplegu publikoaren eskaintza honetako plazak elkarrekin eskaini ahal izango dira, hala badagokio, 2022, 2023 eta 2024. ekitaldietako enplegu publikoaren antzeko eskaintzekin batera, dagozkion deialdi partikularretan sartuta, halako moldez non enplegu publikoaren eskaintza guztiak batera gauzatu ahal izan daitezten hautaketa-prozeduraren deialdi bakar batean, zeinean sartuko baitira eskaintza horietako plaza huts guztiak.



## 7. artikulua

Kasuan kasuko deialdietan zehaztuko dira eskainitako plazak eskuratzeko prozedura eta baldintzak. Deialdi bakoitzaren oinarri orokorrek eta espezifikoek ezarritakoaren arabera kudeatuko dira hautaketa-prozesuak gauzatzeko jarduketak.

### AZKEN XEDAPENA

Erabaki honek onesten den egunetik aurrera izango ditu ondorioak; ez du ondorioetan eragingo erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeak.

## II

### BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN (GUF) 2025. URTERAKO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA OSATZEN DUTEN PLAZEN ZERRENDA

Plaza kod.	Plazaren izena	H.E.	Plaza huts kop.	Txanda irekia	Barne-sustapena
421	GIZARTE-HEZITZAILEA	C1C1	5	4	1
444	GOI MAIL. GIZART. TEK.	C1C1	5	2	3
520	ERIZAINA	C1C1	7	6	1
550	OSASUN-LAGUNTZAILEA	B2B2	20	15	5
645	ZERB. TEK. OFIZIALA	B1B1	1	1	
701	LH2-KO SUKALDARIA	B1B1	2		2
710	SUKALD. ZERBITZARIA	B1B1	1	1	
720	ZERBITZ. GARBITZAILEA	B1B1	6	6	
640	ATEZAIN MANTEN. LAGUNTZ.	B2B2	10	5	5
650	MANDATARIA	B2B2	4	2	2
740	SUKALDEKO LAGUNTZAILEA	B1B1	2		2
	GUZTIRA		63	42	21

(\*) Dagozkien deialdi partikularrak gauzatzearekin batera, funtzionalki zehaztuko dira eskainitako plaza bakoitzarekin lotutako lanpostuak, esleitutako HEak eta haien derrigortasun-datak, eta desgaitasuna duten pertsonen bete ditzaten erreserbatzen diren plaza hutsak.